

## BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 226

*EBAZPENA, 2018ko urtarrilaren 5ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez eranskinean aipatzen diren udal-administrazioei ordezkapenatarako diru-laguntzak ematen baitizkie.*

Diru-laguntza horiek euskara-eskoletara joateagatik egindako ordezkapenak diruz laguntzeko ematen dira, Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Agindua-ren 7. artikulua eta ondorengoak betez. Agindu horren bidez, batetik, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoei eskainiko dien hizkuntza-pres-takuntzako zerbitzua arautzen da eta, bestetik, euskara-ikastaroetara doazen udal langileak ordezkatzeko diru-laguntzen arauak ezartzen dira.

Ikusirik ordezkapenak zurrizko udal-administrazioek aurkeztu duten dokumentazioa eta berau Aginduan ezarritakoarekin konparatu ondoren, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Eranskinean aipatzen diren udal-administrazioei bakoitzarentzat izendatzen den diru-kopurua ematea, egindako kontratazioen diru-laguntza gisa. Emandako diru-laguntza 2017ko uztaila-abendua epeari dagokio, gehienez ere.

Ebazpen honen aurka ezin da errekurtsorik jarri administrazio-bidean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluari jarraikiz.

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari aurkez dakioke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da jakinarazi eta biharamunetik hasita, aipaturiko 29/1998 Legearen 46. artikulua ezartzen duenez.

Hala ere, alde zuzenetik, erakunde honi errekerimendua egin ahal izango zaio, egintza ezeztatuz. Errekerimendua IVAPeko zuzendariari zuzendu beharko zaio, idazki arrazoitu baten bidez. Errekeritzeko epea bi hilabetekoa izango da, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita. Errekerimendua jaso eta hurrengo hilabetean erantzunik ematen ez bazaio, ukatutzat joko da (29/1998 Legearen 44. artikulua). Aurretik errekerimendurik izan bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea berariazko akordioa jasotzen den edo isilbidez ezeztatuta jotzen den hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 5a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,  
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.

2018ko urtarrilaren 17a, asteazkena

## 2017KO UZTAILA-ABENDUA ERANSKINA

Erakundea	Modulua	Diruz lagundutako hilabeteak	Ikasle kopurua	Diru-laguntza	Guztira
Donostiako Udala	25	2,96	1	6.153,58	6.153,58
<b>GUZTIRA</b>					<b>6.153,58</b>